

Landareak

JAKOBA ERREKONDO



JAKOBA ERREKONDO

5

Hernaniko Goiz-eguzki parkean aparteko babesa duen zuhaitz bat bizi da, ginkgo bat, *Ginkgo biloba*. Azken karlistadaren amaian (1875 aldera) Hernaniko Udalak inguru horretako zuhaitzak su-egurretarako moztea agindu omen zuen. Gerora landatutakoa izango da, beraz, ginkgo hau. 1875 eta 1896 artean Donostian paisajista lanetan aritu zen Pierre Ducasse baionesak jarria ez bada, haren eraginez behintzat bai. Besteak beste Aieteko parkea, Gipuzkoa enparantza eta Gladys-enea parkea, Hernaniko honen bikia dirudien ginkgoa duena, berak sortu zituen. Hurrengo gerratean, 1936-1939koan, burdinazko bost eskailera maila baldar iltzatu zizkioten gerritik gora, tala gisa, zaintza lanetara gainera igotzea errazteko. Hor ditu oraindik, ia-ia jan baditu ere. Bi kana eskasekoa, 200 ontzako, 4,5 metroko gerri-buelta ederra du eta adaburuak hogeit metrotik gora du luze-zabal.

Emea da ale hau eta urtero ez bada ere fruitu ugari ematen du. Nabarmena da uzta, helitzen denean koxkorrak kaka-usain ikaragarria baitu. Kirats hori dela-eta, ia ginkgo arra besterik ez da ikusten oraintxe kale eta parketan.

Esatera

“Martxoko ostotsak,
berrogei eguneko negua”

Lorearen ordua

ASTALOREA EZ, noski, baina babalorea eta azalorea fruitua eta haziaren aurrekoak dira. Beren katea ez eteteo oinarrizkoa du lorea landareak, eta nekazariak badaki: loratzea nolako uzta halako. Mendetan zehar etengabe landu da loraketaren hobekuntza, batik bat toki bakoitzeko ingurunearen baldintzen mugetara egokitzea. Eta jarraitu egiten du.

Sevillako unibertsitatean, esaterako, landareak lorea noiz eman menderatu nahian dabilta. Laborategietan erruz erabiltzen diren landare bat, *Arabidopsis thaliana*, eta alga bat, *Chlamydomonas*, dituzte eskuartean. Landarea Euskal Herri osoan bizi bada ere, ez diot ez bertako izenik ez inolako erabilpenik eza gutzen. Espainia alde horretan, baina, ederki dantzatu dute.

Gutxi gehiago, duela 500en bat milioi urte, ordulari zirkadianoan edo biologikoan eta egunaren argi ordu kopuruan funtsa duen bizitza-zikloa garatu zuten algek. Funts horri eutsi diote orain arte, bai algek baita haien ondorengo zuzenak diren landareek ere. Ordulari biologikoa landarearena berarena da, endogenoa, eta bizi den inguruan gertatzen diren gorabeheren erara egokitzen da. Oraingo honetan, *Current Biology*-n argitaratu eman dutenez, algaren gene bat landareari txertatu diote. Gene horrek, inondik ere, landarea hazte soiletik loreak irekitzera igarotzea bultzatzen duen proteina baten tankera du, eta ondorioz, landarearen loraldia behar baino lehenago gauzatu da. Loraldia nahi ahala maneiatze honek ikaragarriko aukerak irekitzen ditu nekazaritzan. Tomatearekin eta arrozarekin ari dira lanean, lorearen sasoia nahierara aukeratuz uzta etekin hobeak izateko, batetik, eta haziak noiz eman erabakitzeko aukerak, bestetik. Behingoagatik, geneak eraldatuz txanpon hots hutsak ez diren helburu onak ere izan daitezkeela, alegia. Adi ordea, denon bizitzan oinarrizkoa den ordulari biologikoa mugituz...

